

## GAU-LOREAK V. KAPITULUA

### -I-

Nazari Erresuma Errege Katolikoan mende geratu zen, eta, beraz, Gaztelako Erreinuari atxikita, 1492ko urtarrilaren 2an. Azkenean, Boabdil erregeak men egin behar izan zuen. Traidore gehiegi izan zituen bere aldamenean. Eta ezin ukatu Errege Katolikoan ejertzitoaren lana ere. Halaber, ejertzito horrek Europako herrialde askotatik etorritako mertzenario ugari zituen alde, erlijioaren aitzakiarekin jardun zutenak.

Kontuak kontu, Pedro Ilunbekoa ez zen Mutrikuko Ilunbe dorretxera heldu 1493ko martxoaren amaiera aldera arte. Ordainsari ederra eman zioten Gonzalo Fernández de Córdoba-rekin, hots, Kapitain Handiarekin aritzeagatik. Harekin batera, urte batzuk lehenago, Granadan, Alhambrako Mexuar aretoan, lortutako agiri-sortak balio handia zuen antza.

Etxera itzuli aurretik, Madriletik igaro zen, eta, bertan, ordainsaria ez ezik, bestelako saria ere eman zioten: bere armarría osatzeko eskubidea aitortu zioten Errege Katolikoek, Granadan erakutsitako ausardiarengatik. Modu horretara, Pedro Ilunbekoak odol tantak dituen sable bat jarri zuen urre koloredun armarrían, eta goiko aldean, hurrengo hitzak: «Jesusen fedeagaitic il». Sablearen azpian eutsi egin zion aurretiaz zirku-luerdi gisa, gorantz begira, ageri zen hamar katebegidun kate urdinari.

Baina agiri-sorta haietan zer ezkututzen zen inork gutxi zekien artean. Pedro Ilunbekoa zer horietako bat, agiri guztietatik bat bere esku jarri zutelako. Orrialde dezente zituen. Latinez zeuden gehienak baina baziren euskarazko pasarte batzuk ere. Letrango IV. Kontzilioari buruzko agiria zen berau. Enkargua hartu zuen, ordea, inori ezer ez esateko eta Mutrikura eramateko, Berriatuartarren esku uzteko hain zuzen ere. Azken horiek Mutrikuko familiarik aberatsenetako bat osatzen zuten, hainbat ontziren jabe baitziran, bai eta itsasoko merkataritzan adituak ere.

Bitxia da benetan bizitza. Granadatik Madrilerara, eta Madriletik berriro sorterrira itzuli behar zuen Pedro Ilunbekoak, agiri hura eskuan emateko Berriatuartarrei. Mendez mende iraun behar zuen agiri hark ondo gordeta, informazio garrantzitsua omen zuelako jasota. Egia esan, aipatutakoa baino ez zuen jakin Pedro Ilunbekoak, agiria zigilu batekin lotu baitzuten Madrilén. Gainera, ondoren, kutxa batean sartu zuten. Kutxa zabal zitekeen, baina zigilua urratu edo hausterik ez zegoen. Bestela, Berriatuartarrek oso-osoan igarriko lukete norbaitek, gutxienez, agiria zabaldu izana.

Horrela, 1493ko udaberrian, kukuaren katuarekin batera, heldu zen Mutrikura agiri hain misteriotsua.

## -II-

Kukuak kuku abestu bitartean  
heldu zen Mutrikura ondo gordetako sekretua.  
Euskaraz idatzitako lehenengo testua ote?  
Hankaz gora jar dezakeena euskararen historia?  
Hiru mende aurreratuz bere idatzizko presentzia?  
Ezin jakin ordea zer dioen agiri horrek.  
Jakin nahi eta ezin,

bide luzea egin duelako  
gau-loreek egin zutenaren antzekoa gero  
bi-biak uztartu artekoa bederen  
historiaren pasadizo eder, aberatsean.  
Non ote dago orain,  
XXI. mendearen hastapenetan gaudenean?  
Agiria ezin jakin non dagoen,  
nahiz eta, akaso, bere ibilbideari jarrai dakioken.  
Euskara bada, aldiz, gurean,  
ordutik hona heldu zaiguna,  
baita lehenagotik ere,  
bizi eta jori  
plazan  
ageri.

*(Jarraituko du)*

*Francisco Javier Arrieta Idiakez*